




Gipuzkoako Bizikletaren Behatokia

GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIDEEN OINARRIZKO FORU SAREKO JOAN- ETORRI KOPURUAREN BILAKAERA OROKORRA (2020)



Donostia, 2020ko otsailaren 15a


Edorta Bergua

Bizikleta bideen Plangintzako eta Sustapeneko goi mailako teknikaria



- Oinarriztat hartuta, alde batetik, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarearen¹ 131,8 kilometroetan zehar instalatutako 29 aforalekuetako erregistroak, eta bestetik, datuak jasotzean² izandako hainbat etenaldi konpontzeko egin diren kalkuluak, esan dezakegu ezen, 2020an, sare horretan, guztira **7.937.884** joan-etorri egin zirela, oinez nahiz bizikletan.

**GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIDEEN OINARRIZKO FORU SAREKO
JOAN-ETORRI KOPURUAREN BILAKAERA
(2009 - 2020)**



Bidaia horietatik, 5.947.431 (% 75) oinezkoenak ziren, eta 1.990.453, berriz (% 25), txirrindularienak.


Eguneko batez besteko bidaia kopurua 21.688 da (16.250, oinezkoenak, eta 5.438, berriz, txirrindularienak). Hori, globalki, Lurraldebusek 2019an garraiatutako bidaiari guztien % 31,4ren baliokide da³.

¹ Txosten honetan egiten den analisia Oinarrizko Foru Sareari buruzko datuetan bakarrik zentratzen da; beraz, txostenetik kanpo gelditzen dira udal titulartasuneko bizikleta bideak, bai Oinarrizko Udal Sarekoak –zeintzuk planifikatuta baitaude Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean (101 km zerbitzuan)–, bai Planekoak ez direnak (166 km zerbitzuan).

² Garrantzizkoa da ohartaraztea ezen, 2020an, 16 aforalekuk era askotako gorabehera teknikoak jasan zituztela (ikus xehetasun gehiago 1. eranskinean), eta horiek eragin dute oinezkoak eta bizikletak kontatzeko sentsore batek edo biek ez jardutea 15 egun eta 7 hilabete bitarteko aldi batzuetan. Kasu horietan, zegokion kontagailua ez zebilen egunei buruzko bidaia kopurua kalkulatzeko, oinarriztat hartu da zer proportzio izan zuten egun horiek gorabeherarik gabeko aforalekuetan kontabilizatu ziren datuen multzoan.

³ Txosten hau idazteko orduan, ez dago 2020ko daturik Lurraldebuseko bidaiariei buruz.

2. Datu horiek **984.908 joan-etorriko gehikuntza global** bat agertzen dute 2019aren aldean, eta ehunekotan, berriz, % 14,2ko gehikuntza bat adierazten dute, hau da, 2019an erregistratutako % 13tik gertu dagoen zifra bat⁴.



Igoera hori are garrantzitsuagoa da kontuan hartzen bada murrizketa zorrotzak ezarri zitzaizkiola mugikortasunari martxoaren bigarren erdialdean eta apiril osoan, jasandako pandemia-egoeraren ondorioz. Hain zuzen ere, erantsitako grafikoan egiaztatzen den bezala, **2020ko martxoan eta apirilean⁵, jaitsiera ikusgarri bat** izan zuten oinezkoen eta txirrindularien **mugimenduek** –% 53 eta % 89, hurrenez hurren–, 2019an erregistratuekin konparatuta.

Gero, mugikortasun orokorrari ezarritako murrizketak altzatzeak **ehuneko igoera oso esanguratsuak** eragin zituen joan-etorrietan **maiatzean (% 44), ekainean (% 25) eta azaroan (% 68)**, aurreko urteko hilabete horien aldean.

⁴ Argitu beharra dago 2018 eta 2019 artean kontabilizatu ziren oinezko eta txirrindulari kopuruen ehuneko gehikuntza itxuraz handiago hori, zeren eta 2018an abian jarri ziren 10 aforalekueetatik 9 (faktore horrek azaltzen du urte horretan erregistratutako jauzia) ekainetik abuztura bitartean aktibatu baitziren. Beraz, 2018ko datuetan, ez ziren erregistratu urteko bidaia guztietatik 9 kontagailu horiei zegozkien erdiak baino gehiago; beraz, 2018 eta 2019 arteko gehikuntza erreala % 13 inguruan zifratu behar da.

⁵ Análisi hori urteko serie konparagarriekin egiteko, 2020ko datu hauek bakarrik erabili dira: eternaldi teknikorik izan gabe abian jarraitu zuten 13 aforalekuei dagozkienak.



Ez da antzematen desberdintasun azpimarragarririk, alde horretatik, oinezko eta txirrindularien fluxuen artean, salbu azaroko gailurrean, noiz txirrindularien gehikuntzak oinezkoena hirukoizten baitu (+% 153 eta +% 56, hurrenez hurren).

3. Nahiz eta balantze positibo hori gertatu bai oinezkoen joan-etorrietan (+511.000) bai txirrindularienetan (+474.000), bereziki azpimarragarria da azken horien kasuan, horrek adierazten baitu **txirrindulari fluxuen % 31ko ehuneko igoera bat** 2019arekiko, oinezkoek izandakoa hirukoizten duena (% 9).

Zifra hori **errekor** bat da, lehenengo aldiz iristen baita 2 milioi bidaiaren kotara, eta Oinarrizko Foru Sareko txirrindulari fluxuetan inoiz **erregistratutako ehuneko gehikuntzarik handiena** baita 2011n hasitako serie historikoan.

Oinarrizko Foru Sarean txirrindularien kopuruak izan duen igoera harrigarri horrek zerkusia du, alde batetik, 2018tik aurrera abiatu zen goranzko joera batekin. Hala ere, us-te dugu, **funtsean, pandemiak eragindako mugikortasun arauetan izan diren aldaketan ondorio dela**, murrizketa ekarri baitiete, bai automobilaren erabilerari –hasieran, behintzat–, bai, hein handiago batean, garraio publikoko bidaiari.

Horren eraginez, handitu egin dira bizikletaren erabilera eta oinez ibiltzea, baita mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen erabilera ere, joan-etorriak egiteko modalitate horiek gutxitzen baitute hobekien beste pertsona batzuekiko kontaktu fisikoa, eta sozialki higienikoagotzat eta osasungarriagotzat jotzen baitira.

Horri gehitu behar zaio beste faktore bat, nola baita perimetroak ezartzea, mugikortasun geografikoa mugatzen dutenak, horiei esker pertsona kopuru handiago batek aukeratzeko baitu joan-etorriak oinez eta bizikletan egitea, lanegunetan nahiz jaiegunetan⁶.

Bestalde, **bizikleta-joera goranzko hori, bat dator**, pandemiaren esparruan **Europa mailan ikusitakoarekin**, nahiz eta Oinarrizko Foru Sarean nabarmen handiagoa izan den. Hain zuzen ere, kalkulatu den bezala, Europar Batasunean⁷, bizikleta fluxuen urteko kopurua, 2020an, % 8 igo da, batez beste, eta % 10, berriz, Frantzia⁸; Oinarrizko Foru Sarean, ordea, % 31ra iristen da.

Neurri apalago batean, aipatzekoa da, bizikleta-bidaien igoera beharbada lagunduko zuen faktore gehigarri modura, 2020ko **plubiometria metatua**, % 7 txikiagoa izan bai-

⁶ 2019 eta 2020 bitartean, egonkor dirau Oinarrizko Foru Sarean proportzio honek: lanegunetako joan-etorriek (% 67) eta jaiegun eta asteburuetakok (% 33) adierazten dutena. Horrek esan nahi du lortutako gehikuntzak berdindu direla bi egun-multzoen artean.

⁷ Eco-Counter (2021): [“Retour sur le "boom du vélo" en 2020 - avec des données !”](#).

⁸ Datu horiek lortzeko abiapuntua estatu mailako lagin hau izan da: Maiztasunen Plataforma Nazionalarekin (PNF) partekatutako kontagailu guztiak ordezkatzeko dituzten 182 kontagailuk osatua. Iturria: Vélo & Territoires (2021): [Bulletin n°13 – du 06/01/2021](#).



EB/iri


Int. 4-B/2021

tzen 2019koa baino, nahiz eta azken bost urteotako erregistroen antzeko mailetan kokatzen den.

4. Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sareko **igarotze intentsitatea** asko aldatzen da sarea osatzen duten bide-tarteen arabera.

Kontuan hartuta 2020an kontabilizatutako fluxuen magnitudea, **bide-tarteen tipologia** bat ezar dezakegu, hiru multzo hauek osatua:

- a) Urtean 400.000 bidaiatik gora erregistratzen dituzten bideak.
Multzo hori sei bidek osatzen dute, eta, denek batera, Oinarrizko Foru Sareko joan-etorri guztien % 35 kontzentratzen dute.
- b) Urtean 200.000 eta 400.000 bidai bitartean erregistratzen dituzten bideak.
Multzo hori 13 bidek osatzen dute, eta urteko fluxu guztien % 48 ordezkatzeko dute.
- c) Urtean 200.000 bidaiatik behera erregistratzen dituzten bideak.
Bederatzi bidek osatzen dute, eta Oinarrizko Foru Sareko bidaien % 17 dira.



Horia: ≤ 200.000 bidaia/urteko

Laranja: 200.000 - 400.000 bidaia/urteko

Gorria: ≥ 400.000 bidaia/urteko



Erantsitako taulan ikus daitekeenez, oinezkoen eta txirrindularien fluxu tartea handitik txiki-
ra doa: 607.000 bidaia kontabilizatzen dira Astigarraga – Martutenen, eta 71.000, berriz.
Segura – Zegaman.

	JOAN-ETORRIEN BILAKAERA				
	2019	2020	Δ	Δ oinezkoak	Δ bizikletak
AZPEITIA - AZKOITIA	581.936	488.791	-% 16	-% 22	% 16
ASTIGARRAGA - MARTUTENE	558.208	606.881	% 9	-% 3	% 36
TOLOSA - ALEGIA	417.919	410.826	-% 2	-% 6	% 5
ARRASATE – ARETXABALETA	405.747	409.202	% 1	-% 1	% 25
ANOETA – TOLOSA	391.521	358.555	-% 8	-% 12	% 14
LEGAZPI – ZUMARRAGA	367.609	413.718	% 13	-% 5	% 109
LEZO – PASAI DONIBANE	354.969	393.617	% 11	% 10	% 30
HERNANI – ASTIGARRAGA	301.401	348.427	% 16	% 2	% 75
ELORREGI – BERGARA	295.411	364.205	% 23	% 49	-% 57
OÑATI – EPELE	294.452	313.405	% 6	% 1	% 15
ELGOIBAR – MALTZAGA	289.810	300.708	% 4	% 1	% 61
ITSASONDO – ORDIZIA	283.434	318.794	% 12	% 10	% 31
ZUMARRAGA – AZKOITIA	261.053	300.493	% 15	% 15	% 16
ARRASATE – ELORREGI	215.980	198.014	-% 8	-% 17	% 21
AMUTE ⁹	215.900	484.929	% 125	% 123	% 129
LASARTE – USURBIL	210.110	207.237	-% 1	-% 24	% 51
LEITZARAN	182.159	234.139	% 29	% 25	% 44
AZPEITIA – LASAO	176.159	252.225	% 43	% 54	% 16
SORALUZE – BERGARA	149.592	209.089	% 40	% 46	% 18
BEASAIN – ORMAIZTEGI	145.591	186.416	% 28	% 20	% 63
ESKORIATZA – ARETXABALETA	133.000	184.951	% 39	% 35	% 53
ZIZURKIL – ASTEASU	132.792	189.413	% 43	% 43	% 41
ESKORIATZA – LEINTZ GATZAGA	131.906	200.386	% 52	% 53	% 46
AÑORGA – ERREKALDE	127.210	160.539	% 26	% 18	% 42
IRUN – ENDARLATSA	114.742	134.282	% 17	-% 27	% 43
ANTZUOLA – BERGARA	90.461	124.935	% 38	% 34	% 67
SEGURA – ZEGAMA	62.035	71.224	% 15	% 9	% 43
SEGURA – IDIAZABAL	61.870	72.484	% 17	% 10	% 53
GUZTIRA	6.952.976	7.937.884	% 14	% 9	% 31

⁹ Amuteko aforalekua 2019ko ekainean jarri zen abian; horregatik, urte horretan, hilabete horretatik aurrera kontabilizatutako datuak kontabilizatu ziren; horrek azaltzen du 2020an izandako gehikuntza.



2020ko emaitzak aurreko urtean lortutakoekin konparatuta, ehunekotan, azpimarratze-koak dira **% 40tik gorako gehikuntza global ikusgarriak, lau bide-tartetan** ikusten direnak (Azpeitia – Lasao, Eskoriatza – Leintz Gatzaga, Soraluze – Bergara, eta Zizurkil – Asteasu)¹⁰.

Zenbaki absolutuetan, igoerarik handienak (60.000 eta 69.000 bitarteko bidaia berri) bide-tarte hauetan izan dira: Elorregi – Bergara, Eskoriatza – Leintz Gatzaga, eta Soraluze – Bergara.

Orobat, ohartarazi behar da ezen, **bost bide-tartetan**¹¹, **% 60tik gorako gehikuntza** izan zutela **txirrindulari fluxuek**: Legazpi – Zumarraga, Hernani – Astigarraga, Elgoibar – Maltzaga, Beasain – Ormaiztegi, eta Antzuola – Bergara; gailen agertzen da Legazpi – Zumarraga (+% 109).

Kontrako zentzuan, nabarmendu behar da ezen, **bost bide-tartek jaitsierak** izan dituzten **beren fluxu globaletan**: Azpeitia – Azkoitia (-% 16)¹², Anoeta – Tolosa (-% 8), Arrasate – Elorregi (-% 8), Tolosa – Alegia (-% 2), eta Lasarte – Usurbil (-% 1). Erabiltzaile galera horiek oinezkoei bakarrik eragiten diete, zeren eta bizikletan egindako joan-etorriak handitu egin baitira kasu guztietan.

Aipatu beharra daukagu Elorregi – Bergara bide-tartea, berak bakarrik galtzen baititu txirrindulariak (-41.000). Hori % 57ko jaitsierra harrigarri bat da 2019arekiko, eta ez dakigu zer arrazoi dauden horren azpian.

Azkenik, Irun – Endarlatsa eta Lasarte – Usurbil bide-tarteetan, zeintzuek oinezkoen galerarik handienak izan baitituzte ehunekotan (-% 27 eta -% 24, hurrenez hurren), ikusten da nola, aldi berean, txirrindularien kopurua nabarmen handitu den (+% 43 eta +% 51). Pentsatzekoa da gertaera itxuraz paradoxiko horren arrazoia izan litekeela – neurri batean, behintzat – okerrera egin dutela bi kolektiboak batera ibiltzeko baldintzek, txirrindulari kopurua nabarmen igotzearen ondorioz, zeinak eragingo baitzuen oinezkoek alde egitea, segmenturik zaurgarriena delako.

Donostia, 2021eko otsailaren 15a

Sin. Edorta Bergua

Bidegorrien Plangintzako eta Sustapeneko goi mailako teknikaria

¹⁰ Multzo horretatik baztertu da Amuteko bide-tartea, zeren eta 2020an izandako gehikuntzaren arrazoia baita 2019ko datuak ekainetik abendura bitarteko aldiari bakarrik dagozkiola.

¹¹ Idem.

¹² Azpeitia – Azkoitia bide-tarteak izan ditu galerarik handienak, ez bakarrik ehunekotan, baita zenbaki absolutuetan ere (-93.000 bidaia). Zirkunstantzia horrek lotura izan lezake Azpeitia – Urrestilla bizikleta-bidea 2020an zerbitzuan sartzearekin, horrek, hipotetikoki, erabiltzaileak kenduko baitzizkion aipatutako bide-tarteari.



1. ERANSKINA	
Erabiltzaileen kontaketetan etenaldiak izan dituzten aforalekuen zerrenda	
Amute	Ez zebilen 2020-12-12tik 2020-12-31ra.
Azpeitia – Azkoitia	Ez zebilen 2020-12-12tik 2020-12-31ra.
Azpeitia – Lasao	Bizikleta-kontagailua matxuratuta 2020-06-09tik 2020-06-17ra.
Azkoitia – Zumarraga	Ez zebilen 2020-05-28tik 2020-12-31ra.
Beasain – Ormaiztegi	Ez zebilen 2020-01-01etik 2020-01-21era. Bizikleta-kontagailua matxuratuta 2020-03-09tik 2020-05-11ra bitartean, eta 2020-08-27tik 2020-09-27ra bitartean.
Elgoibar – Maltzaga	Ez zebilen 2020-01-02tik 2020-01-17ra. Bizikleta-kontagailua matxuratuta 2020-10-13tik 2020-11-25era bitartean.
Elorregi – Bergara	Ez zebilen 2020-11-03tik 2020-12-31ra.
Eskoriatza – Aretxabaleta	Ez zebilen 2020-01-01etik 2020-01-21era.
Hernani – Astigarraga	Ez zebilen 2020-09-17tik 2020-09-30era. Bizikleta-kontagailua matxuratuta 2020-05-23tik 2020-06-22ra bitartean.
Irun – Endarlatsa	Ez zebilen 2020-01-01etik 2020-02-19ra bitartean, 2020-02-26an eta 2020-02-29an, 2020-03-05ean, eta 2020-05-09an.
Lasarte – Usurbil	Ez zebilen 2020-01-01etik 2020-01-22ra bitartean, 2020-03-04an eta 2020-03-17an, eta 2020-05-16tik 2020-05-19ra bitartean.
Legazpi – Urretxu	Bizikleta-kontagailua matxuratuta 2020-04-06tik 2020-06-03ra bitartean.



	Oinezkoen kontagailua matxuratuta 2020-02-04tik 2020-04-05era bitartean.
Leitzaran	Ez zebilen 2020-11-23tik 2020-12-31ra.
Segura – Idiazabal	<p>Bizikleta-kontagailua matxuratuta 2020-01-31tik 2020-05-13ra bitartean.</p> <p>Oinezkoei buruzko datuek orduko 1.000 joan-etorritik gorako gailur ugari agertzen dituzte. Ez dakigu zergatik gertatzen den hori, baina ikusirik bide-tarte horretako fluxuen bilakaera historikoa, ez ditugu jotzen sinesgarritzat datu horiek; horregatik, haiek zuzentzea aukeratu da, eta haiek kalkulatzeko, abiapuntutzat hartu da zer proportzio duten oinezkoen joan-etorriek, bide-tarte horretan, txirrindularienekiko, gainerako egunetan.</p>
Tolosa – Alegia	Bizikleta-kontagailua matxuratuta 2020-03-06tik 2020-05-11ra bitartean.
Zumarraga – Azkoitia	Bizikleta-kontagailua matxuratuta 2020-01-01etik 2020-05-12ra bitartean.